



**EBAZPENA, HAUR, NERABE ETA
FAMILIA ZUZENDARIARENA,
ZEINAREN BIDEZ EGITEN BAITZAIE
HERRITARREI AURRETIAZKO
KONTSULTA, AEKO UDAL ETA
LURRALDE MAILAKO GIZARTE
ZERBITZUETAN HAUR ETA
NERABEEN BABESGABEKO
EGOEREN LARRITASUNA
BALORATZEKO TRESNA
EGUNERATZEKO.**

**RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE
INFANCIA ADOLESCENCIA Y
FAMILIA POR LA QUE SE SOMETE A
CONSULTA PREVIA A LA
CIUDADANIA LA ACTUALIZACIÓN
DEL INSTRUMENTO PARA LA
VALORACIÓN DE LA GRAVEDAD DE
SITUACIONES DE DESPROTECCIÓN
EN LOS SERVICIOS SOCIALES
MUNICIPALES Y TERRITORIALES DE
ATENCIÓN Y PROTECCIÓN A LA
INFANCIA Y ADOLESCENCIA EN LA
CAPV.**

Haur, nerabe eta familien zuzendariak beharrezkotzat jotzen du EAEn haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko tresna arautzen duen Dekretua eguneratzea.

El director de infancia, adolescencia y familias considera necesaria la actualización del Decreto por el que se regula el instrumento para la valoración de la gravedad de situaciones de desprotección en los servicios sociales municipales y territoriales de atención y protección a la infancia y adolescencia en la CAPV.

Helburua da gaur egun indarrean dagoen tresna eguneratzea. Besteak beste, arau aldaketetara, gizartearen bilakaerara, gizarte zerbitzuen sistemaren egungo premietara egokitzea eta esku hartze mailan tresnak dituen mugak gainditzea. Dena babesgabetasun-egoerak zorrotz eta koherentziaz baloratzeko helburuarekin.

El objetivo es disponer de una herramienta renovada, adaptada a las necesidades actuales del sistema de Servicios Sociales, que permita valorar de forma rigurosa y coherente las situaciones de desprotección, superando las limitaciones del instrumento vigente derivadas de los cambios normativos, la evolución social y las nuevas demandas de intervención.

Hori guztia, haur eta nerabeen babesaren arloan gizarte-zerbitzuek egiten duten jarduna irizpide homogeen, objektiboen eta oinarri juridiko sendoen arabera gauzaten dela bermatzeko; horrela, ahultasun-egoeren detekzio goiztiarra ahalbidetuz, babesgabetasun-mailaren banakako eta proportzionatutako balorazioa eginez, hartutako erabakien oinarri tekniko eta juridikoa sendotuz, eta udal zein lurralde mailako gizarte-zerbitzuen jardunaren koordinazioa eta koherentzia sustatuz, betiere adingabekoen interes gorena irizpide nagusi gisa hartuta.

Todo ello, con la finalidad de garantizar que la actuación de los servicios sociales en materia de protección infantil y adolescente se realice con criterios homogéneos, objetivos y jurídicamente fundamentados, permitiendo la detección precoz de situaciones de vulnerabilidad, la valoración individualizada y proporcional del grado de desprotección, la fundamentación técnica y jurídica de las decisiones adoptadas, y la promoción de la coordinación y coherencia en la actuación de los servicios sociales municipales y territoriales, siempre con el interés superior del menor como criterio

primordial.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia.

De conformidad con lo dispuesto por el artículo 11 de la Ley 6/2022, del 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general recabará en consulta pública previa y, con carácter previo a la redacción de la propuesta de texto jurídico normativo, la opinión de la sociedad.

Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita, eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da:

El trámite de consulta pública previa se realizará mediante el anuncio en el tablón de anuncios de la sede de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El anuncio de consulta pública previa invitará a la ciudadanía a que se pronuncie acerca de los siguientes aspectos:

- A) Araua onestearen premia eta egokitasuna.
- B) Arauaren xedeak.
- C) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

- a) La necesidad y oportunidad de aprobar la norma.
- b) Los objetivos de la norma.
- c) Los problemas que pretende solucionar.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 9.e) artikulua emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

En virtud de las competencias atribuidas por el 9.e) del Decreto 320/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Herritarrei gonbita egitea ebazpen honen eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten 15 eguneko epean, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Invitar a la ciudadanía a que, durante el plazo de 15 días, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pronuncie acerca de la información contenida en el anexo de esta resolución.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma

Gorka Oraa Martínez de Laño
HAUR, NERABE ETA FAMILIA ZUZENDARIA
DIRECTOR DE INFANCIA, ADOLESCENCIA Y FAMILIAS

ERANSKINA

ANEXO

1.- Araua onestearen premia eta egokitasuna.

Balorzio-tresnaren eguneratzea beharrezkoa da indarrean dagoen arau-esparrura egokitzeko, - Haur eta Nerabeen 2/2024 Legeak eta Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurrean Babesteko 8/2021 Legeak ezartzen dituzten printzipio eta jardun-irizpide berriak jasotzea-, baita ere gizarte-errealitatearen bilakaerak eta haurren eta nerabeen arloko esku-hartze mailan dauden beharrian berrietara egokitzea.

Aldaketa horiek agerian uzten dute gaur egun erabiltzen den eredia ez dela nahikoa EAEko babes-sistemaren eskakizunei erantzuteko. Ondorioz, egokia da tresna berri bat garatzea, babesgabetasun-egoeren balorazioan koherentzia, eraginkortasuna eta homogeneotasuna indartuko dituena, eta EAEko arau eta estandar teknikoek ezartzen dituzten betekizunetara egokitutako esku-hartzeak bermatuko dituena.

2.- Arauaren xedek.

Arauaren helburua da haur eta nerabeen babes-sistemaren oinarri izango den balorzio- eta kalifikazio-tresna eguneratu bat sortzea, gizarte-zerbitzuen jardunean irizpide homogeenak, objektiboak eta oinarri juridiko sendoak bermatuko dituena.

Horren bidez, ahultasun-egoeren detekzio goiztiarra hobetzea bilatzen da, babesgabetasun-mailaren banakako eta proportzionatutako balorazioa bermatzea, hartutako erabakien oinarri tekniko eta juridikoa sendotzea, eta udal zein lurralde mailako gizarte-zerbitzuen arteko

1. Necesidad y oportunidad de aprobar la norma.

La actualización del instrumento de valoración se justifica por la necesidad de adecuarlo al marco normativo vigente, que incorpora nuevos principios y criterios de actuación derivados de la LOPIVI y la LIA, así como por la evolución de la realidad social y la aparición de nuevas necesidades de intervención en el ámbito de la infancia y la adolescencia.

Estas transformaciones evidencian que el modelo actualmente en uso ya no responde de manera suficiente a las demandas del sistema vasco de protección. En consecuencia, resulta oportuno elaborar un instrumento renovado que refuerce la coherencia, eficacia y homogeneidad en la valoración de las situaciones de desprotección, garantizando intervenciones ajustadas a los estándares técnicos y jurídicos que rigen en la CAPV.

2.- Objetivos de la norma.

El objetivo de la norma es dotar al sistema de protección a la infancia y la adolescencia de un instrumento de valoración y de calificación de la desprotección, que garantice criterios homogéneos, objetivos y jurídicamente fundamentados en la actuación de los servicios sociales.

Con ello se persigue mejorar la detección precoz de situaciones de vulnerabilidad, asegurar una valoración individualizada y proporcional del grado de desprotección, reforzar la fundamentación técnica y jurídica de las decisiones adoptadas y promover una coordinación coherente entre los servicios sociales municipales y



koordinazio koherentea sustatzea, betiere adingabekoen interes gorenaren printzipio gidari gisa hartuta.

3.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Ekimena egungo babesgabetasun-egoeren balorazio-tresnaren zaharkitzea konpontzera dator, azken aldiko arau-aldaketek, gizarte-errealitatearen bilakaerak eta haur zein nerabeen arloko esku-hartze beharizan berriek eragindakoa.

4.- Bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Tresnaren izaera teknikoa eta indarrean dagoen arau-esparruarekin zein EAEko babes-sistemaren egungo estandarrekin erabateko egokitzapena bermatzeko beharra kontuan hartuta, ez da identifikatzen arau-zein arau kanpoko bestelako irtenbide bideragarriarik. Eguneratze honen bidez bakarrik izango da posible tresna zehatzago, koherenteago eta eraginkorrago bat izatea, babesgabetasun-egoerak behar bezala baloratzeko eta egungo eskakizun juridiko eta teknikoetara egokitutako esku-hartzeak bermatzeko gai izango dena.

territoriales, situando siempre el interés superior del menor como principio rector.

3.- Los problemas que pretende solucionar la iniciativa.

La iniciativa pretende solucionar la desactualización del instrumento vigente de valoración de situaciones de desprotección, derivada de los cambios normativos recientes, así como de la evolución de la realidad social y de las nuevas necesidades de intervención en el ámbito de la infancia y adolescencia.

4.- Otras posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Atendiendo a la naturaleza técnica del instrumento y a la necesidad de garantizar su plena adecuación al marco normativo vigente y a los estándares actuales del sistema vasco de protección, no se identifican opciones viables distintas a la elaboración de una nueva normativa específica. Solo mediante esta actualización es posible disponer de una herramienta más precisa, coherente y operativa, capaz de valorar adecuadamente las situaciones de desprotección y de asegurar intervenciones ajustadas a las exigencias jurídicas y técnicas actuales.